

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

## HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

### GAUR EGUNGO HAURRENTZAKO IPUINEN ILUSTRAZIOAK. GENEROAREN IKUSPEGITIK BEGIRADA BAT

**Egilea:** Itziar Ugarte Elosegi

**Zuzendaria:** Amaia Montorio Uribarren

## AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	3
2.	IKERKETAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIA.....	4
3.	MARKO TEORIKOA.....	5
3.1	GENEROA, SEXUA ETA GENERO SISTEMA .....	5
3.2	JENDARTERATZE PROZESUA .....	6
3.2.1	Generoaren araberako jendarteratze prozesuak .....	7
3.2.2	Jendarteratze prozesua: bizitza osoko prozesua .....	8
3.2.3	Jendarteratzeko agenteak .....	8
3.3	GENERO IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA .....	9
3.4	ILUSTRAZIOA .....	11
3.4.1	Estereotipoak ilustrazioetan.....	13
3.4.2	Iruditegi hezkidetzaille baten bidean .....	14
4.	IKERKETA ENPIRIKOA.....	15
4.1	METODOLOGIA.....	15
4.2	IRUDITEGI HEZKIDETZAILE BATERAKO IRIZPIDEAK.....	18
4.3	IPUINEN AURKEZPENA .....	19
4.4	IRUDIEN AZTERKETA.....	21
5.	EMAITZEN INTERPRETAZIOA .....	24
6.	ONDORIOAK .....	30
7.	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	35

## GAUR EGUNGO HAURRENTZAKO IPUINEN ILUSTRAZIOAK. GENEROAREN IKUSPEGITIK BEGIRADA BAT

Itziar Ugarte Elozegi

UPV/EHU

Ipuinak haurren egunerokotasunean erabiliak diren baliabideak dira eta hauen funtzio hezitzailea ukazina da. Hala ere, genero berdintasunari dagokionez, ipuinek eta bertako irudien funtzioa eztabaidagarri bihurtzen da, tradizionalki genero estereotipoak transmititu dituztela eta genero jendarteratzean duten eragina kontuan izanik. Lan honetan, beraz, gaur egungo ilustrazioek iruditegi parekideago bat sortzera bidean, genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten eta emakume eta gizonen eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzten aztertu da. Premisa horrekin, ikerketa kualitatibo baten bidez, irudiz hornituriko hiru ipuin aztertu dira. Emaitzak aztertuta, ondorioek, irudietan parekidetasuna sustatzeko aurrerapausoak egin direla argitu dute, oraindik ere zenbait estereotiporen aztarnak nabariak diren arren.

*Hitz-gakoak: ipuinak, ilustrazioak, genero estereotipoak, hezkidetza, haur hezkuntza*

Los cuentos son recursos utilizados en el día a día de las niñas y niños y es innegable su función educativa. Sin embargo, cuando se trata de igualdad de género, la función de los cuentos y sus ilustraciones resulta cuestionable, teniendo en cuenta que tradicionalmente estos han transmitido estereotipos de género y tienen una gran influencia en la socialización diferencial. En este trabajo, por lo tanto, se analizan las ilustraciones contemporáneas con el objetivo de averiguar si se siguen transmitiendo estereotipos de género y si ofrecen nuevos y diversos modelos de mujeres y hombres. Desde esta premisa, la presente investigación analiza una muestra de tres cuentos ilustrados, mediante un método de análisis cualitativo. Las conclusiones revelan que se han dado pasos hacia la igualdad en las ilustraciones, aunque todavía haya ciertos vestigios de estereotipos en ellas.

*Palabras clave: cuentos, ilustración, estereotipos de género, coeducación, educación infantil*

Tales are resources used in children`s everyday lives and their educative function is inarguable. However, when it comes to gender equality, the function of tales and their illustrations becomes questionable, since they have traditionally transmitted gender stereotypes and they have a significant influence on their gender role socialization. The purpose of this study was to find out whether contemporary illustrations still transmit gender stereotypes and if they provide new and diverse gender role patterns. From this premise, the current research analyzes three illustrated tales, using qualitative research methodology. The conclusions reveal that steps forwards have been made towards gender equality, although some stereotypes still remain in a more subtle way.

*Keywords: tales, illustrations, gender stereotype, children, pre-school education*

## 1. SARRERA

Eskola, eta bereziki haur hezkuntzako ikasgelak, irudiz betetako espazioak dira, haurrak une oro irudiz inguratuta daudelarik. Jakina da, halaber, Haur hezkuntzan egunerokotasunean erabiltzen diren materialak ditugula ipuinak, eta hauen irudiak hezkidetzari begira egin dezaketen ekarpena aztertzea dator lan hau.

Izan ere, ilustrazioen helburua, mezu jakin bat bidaltzea, hizkuntzak esaten ez duena transmititzea, edota haurrei ahoz kontatutakoa bisualki ulertzen laguntzea izan liteke. Hau kontuan izanik, zalantza izpirik ez dago ilustrazioek funtzio garrantzitsuak bete ditzaketela. Horien artean, hainbat ikerketek frogatu duten moduan, ipuinetako hainbat irudiren bidez, genero estereotipoak transmititzen zaizkie haurrei. Hori horrela izanik, eta irudiak garrantzizko tresnak direla sinetsirik, kasu honetan gizartearen ikuspegi parekideagoa eta emakume eta gizonen eredu berriak eskaini ditzaketen aztertuko dugu.

Horretarako, euskaraz argitaratuak izan diren irudiz hornituriko 3 ipuin garaikideren ilustrazioak aztertuko dira, Euskal Herriko eskoletan erabil daitezkeen gaur egungo ipuinek ere genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten ezagutzeko eta ipuinetako irudietan gaur egun eskaintzen zaizkigun emakume eta gizonen eredu berriak ezagutzeko; iruditegi hezkidetzailleago bat sortzea posiblea den ezagutzeko, alegia.

Muin horretara heltzeko, hiru zatitan banatuko dugu ikerlan hau: marko teorikoa, ikerketa eta amaierako ondorioena azkenik.

Marko teorikoak hiru bloke nagusi izango ditu: generoa, jendarteratze prozesua eta ilustrazioa. Generoari dagokion blokean, hau zer den definitzen ahaleginduko gara eta horretarako hurbilpen teoriko ezberdinak baliatuko ditugu, genero sistema zer den ezagutzeko.

Ondoren, bigarren blokean, genero sistemak funtsezkoa duen jendarteratze prozesua aztertuz jarraituko dugu eta jendarteratze ezberdintzailea zein prozesu horretan parte hartzen duten agenteak izango ditugu hizpide, besteak beste.

Ilustrazioaren blokean, berriz, ilustrazioaren oinarriak ezagutu eta honen funtzioetan sakonduko dugu. Azkenik, ilustrazioa eta generoaren arteko harremana ere izango dugu aztergai.

Ikerketak, bestalde, hiru atal nagusi izango ditu: metodologia, ikerketa bera eta emaitzen interpretazioa. Metodologiaren atalari dagokionez, alde batetik, ikergaiaren prozedura metodologikoa izango dugu hizpide eta bestetik lan honen ardatz nagusi diren ipuinen aukeraketarako aldagaiak ezagutuko ditugu. Ondoren, ikerketa burutuko da. Azkenik, ilustrazioen emaitzen interpretazioari ekingo diogularik.

Amaierako ondorio orokorrak adieraziz emango diogu amaiera ikergai honi.

## **2. IKERKETAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIA**

Gradu amaierako lana egiteko, haur hezkuntzako ipuinak hartuko dira gaitzat, bertako ilustrazioak genero ikuspegitik aztertzeke asmoz. Horri jarraiki, ikergai honi helburu eta hipotesi batzuk egotzi dizkiogu.

Helburuen barruan, hurrengoak ditugu: ipuinetako irudietan gaur egun eskaintzen zaizkigun emakume eta gizonen eredu berriak ezagutzea eta ilustrazioek genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten ikertzea.

Ondoko hipotesia abiapuntu hartuta burutuko da lana: jendarte eta iruditegi parekideago bat sortzera bidean, genero estereotipoen presentzia desagerraraziz edo urrituz, ilustrazioetan eredu berriak eta anitzak eskaini daitezke.

Beraz, aipatutako hipotesitik abiatuta, hau frogatzera ekingo diogu.

### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1 GENEROA, SEXUA ETA GENERO SISTEMA

Ikerketa honen oinarriak ilustrazioa eta generoa izanik, ezinbestekoa zaigu genero eta genero sistemari tarte bat eskaintzea, ezinbestekoa baita lan honetan kontzeptu hauei zein esanahi atxikituko zaien jakitea. Izan ere, Santamariak (2012) aipatzen duen legez, teoria feministaren baitan, genero kontzeptua denbora eta espazioaren arabera esanahi ezberdinekin hornitua eta zabaldua izan da, kontzeptu honen inguruan hainbat hurbilpen eta teoria egin izan direlarik.

Hori horrela, datozen lerroetan, kontzeptu honi eman izan zaizkion zenbait ikuspegi eta definizio gainbegiratu ditugu baita lanarekin bat datorren definizioa eman ere.

Simone de Beauvoir-ek, feminismoaren erreferente garrantzitsuak, *El Segundo Sexo* (1949) izeneko lanean emakumea biologiaren emaitza hutsa ez dela argi uzten du, honako baieztapena eginez: “*No se nace mujer; se llega a serlo*” (de Beauvoir, 1949:13). Modu honetan, emakume izatea soziokulturalki eraikia den egoera bezala aurkezten du.

Alfama eta Miró-k (2005), aldiz, generoa harremanekin estuki lotuta dagoela azpimarratu izan dute, generoa harremanen egitura konplexu baten moduan ulertuz:

Por género entendemos, por lo tanto, un sistema de relaciones sociales, simbólicas y psíquicas en el que los hombres y las mujeres son situados de manera diferente (...) Este sistema de relaciones nos indica lo que significa ser hombre o mujer, la relación entre estos dos significados y las distintas pautas de poder y subordinación con las que se dan estos vínculos. Esto se ha concretado históricamente en una relación desigual de poder entre mujeres y hombres (Alfama eta Miró, 2005; Álvarez Moles-ek aipatua 2012:12).

Marta Lamasek (2002), berriz, beste ikuspegi batetik definitzen du generoa, honen alde kulturala edo sinbolikoa azpimarratuz: “el conjunto de prácticas, creencias, representaciones y prescripciones sociales que surgen entre los integrantes de un grupo humano en función de una simbolización de la diferencia anatómica entre

mujeres y hombres” (Antecedentes históricos del concepto de Género-n aipatua, 2006: 32).

Aurreko lerroetan ikusi dugunez, autore desberdinek egindako ekarpenen bidez indartzen joan da generoa kategoria soziala denaren ideia. Baina, genero kontzeptuaren hurbilpen honekin batera, beste elementu bati egin behar diogu erreferentzia: Sexua.

Izan ere, azterketa feministek, sexuaren eta generoaren arteko desberdintasun argigarria egiten dutela aipatzen du Aristizabalek (2010). Horrela, “sexua, giza espeziean iraunkorrak diren ezaugarri biologiko batzuek ematen dute eta ez du zerikusirik ingurune sozialarekin” (Carbonell, 1996; Aristizabalen aipatua 2010:108). Benhabib-ek, berriz, aurreko ideia zalantzan jartzen du, sexuaren interpretazioa ere sozialki eraikia dela defendatuz: “es necesario cuestionar la oposición misma entre sexo y género. La diferencia sexual no es meramente un hecho anatómico, pues la construcción e interpretación de la diferencia anatómica es ella misma un proceso histórico y social” (Benhabib 1990:52; Santamariak aipatua 2012:26).

Sexu eta genero kontzeptuen hari guzti hauek, genero sistemara garamatzate. Genero sistema definitzeko *El sistema sexo-género en los movimientos feministas* (Aguilar García, 2008) laneko hitzak jasoko ditugu:

El sistema sexo-género hace referencia a las formas de relación establecidas entre mujeres y hombres en el seno de una sociedad. Analiza las relaciones producidas bajo un sistema de poder que define condiciones sociales distintas para mujeres y hombres en razón de los papeles y funciones que les han sido asignadas socialmente y de su posición social como seres subordinados o seres con poder sobre los principales recursos (Aguilar García, 2008:4).

### **3.2 JENDARTERATZE PROZESUA**

Genero sistemaren existentziarako erabakigarria da jendarteratze prozesua. Izan ere, pertsona eta jendartea harremanetan jartzen dituen prozesu honi esker, pertsona bakoitzak txiki txikitatik barneratzen baitu sozialki eraikia den errealitatea (Santamaria, 2012). Jendarteratze prozesuaren definizio honetatik abiatuko gara:

Jendarteratze prozesua, pertsona guztiok, jaiotzen garenetik hil arte bizi dugun ikas prozesuari deitzen diogu eta honen bidez, sorterriko kulturaren eta jendarteraren baloreak, ohiturak, sinesmenak eta jarrerak ikasi eta bereganatzen dira. Egun, jendarteratze prozesu honek, homogeneizatze funtzioa (arau eta igurikapen sozial berberak pertsona guztientzat) eta ezberdintze funtzioa (sexuaren arabera, adina, maila sozioekonomikoa, kulturalaren arabera...) du (Urtxintxa Eskola, 2011: 8).

### 3.2.1 Generoaren araberako jendarteratze prozesuak

Definizio honetan hiru funtzio garrantzitsu aipatzen dira: sistemaren barneraketarena, homogeneizazioarena eta ezberdintzearena. Hiru gako horiek, baina batez ere azken gakoa, gizon eta emakumeen jokabideen arteko aldeak aztertzerakoan kontuan hartu beharko ditugula aipatzen du Santamariak (2012).

Izan ere, sozializazio prozesua ezberdina da generoaren arabera (Altable, 1999; Esteban, 2011; Esteban eta Távora, 2008; Bullen, 2011; Fernández, 2010; Santamariak aipatua 2012). Genero sozializazio izeneko jendarteratze mota honen bidez, emakume eta gizonezkoek ezaugarri desberdinak egokitzen zaizkie, rolei, izaerari, fisikoari, harremani baita bizi espektatibei dagokienez ere. Hau azalduta, Alfaroren baieztapen hau uler genezake:

El orden desigual entre mujeres y hombres que fue constituyendo nuestra identidad ya estaba estructurado en el momento en que nacimos. Ser mujer o ser hombre nos otorga una posición social de superioridad o inferioridad, no porque lo decidiéramos así, sino porque lo aprendimos desde niños y niñas (Alfaro, 1999: 13).

Sozializazio ezberdintzaileak, esan bezala, emakumeei eta gizonei lotzen zaizkien ezaugarri dikotomikoen bidez, elkarren artean oso ezberdinak diren subjektuak izatea sustatzen du. Santamariak (2012) dioenaren arabera, emakumezkoen jendarteratze prozesuak ondoko ezaugarriak ditu mendebaldean, besteak beste: ahula, behar afektibo handikoa, hunkibera, emozionala, lotsatia, isila, pasiboa... Gizonezkoen jendarteratze prozesua, aldiz, oso bestelakoa da: indartsua, behar afektibo txikikoa, arrazionala, ausarta, aktiboa, etab.



### 3.2.2 Jendarteratze prozesua: biritza osoko prozesua

Azpimarratzekoa da jendarteratze prozesua biritza osoan zehar gertatzen den prozesua dela. Hala ere, lehenengo jendarteratzeak, hau da, norbanakoaren lehen urteetan ematen denak, berebiziko garrantzia du, kasu honetan, lan honetan oinarri moduan hartuko dugun garaia delarik. Izan ere, lehenengo etapan, norbanakoa pertsona sozial bilakatzen da eta garai hau erabakigarria da norbanakoaren jokabidea ezartzerako orduan, honek bigarren jendarteratzean ere eragina izan dezakeelarik.

Bigarren jendarteratzea aipatzerakoan, lehenengo jendarteratzearen ostean ematen den jendarteratze prozesu etengabeari egiten diogu erreferentzia, non eragile desberdin eta anitzagoek parte hartzen duten. Horren ondorioz, norbanakoak munduaren ulerkera bakarra izatetik, ikuspegia zabaldu eta errealitatearen ulerkera konplexua eta zatikatua bereganatuko du, beste pertsonekin dituen harremanen eraginez, aurretiko zenbait balio kolokan jar daitezkeelarik. Hori dela eta, jendarteratze prozesua prozesu jarraitua eta aldagarria dela ulertzen dugu, Alvarez Moles-ek (2012) azaltzen duen bezala.

### 3.2.3 Jendarteratzeko agenteak

Aurretik aipatu den bezala, jendarteratze prozesuan parte hartzen duten sozializazio agenteak anitzak dira; denek, pertsonen hazkuntza eta garapenean modu aktibo batean eragiten dutelarik. Hala ere, kasu honetan, 3-6 urte bitarteko haurrei bideratutako ipuinetako irudien inguruan lan egingo dugunez, aipatutako gai eta esparru jakin horrekin lotura estua duten agenteak izango ditugu hizpide, batez ere.

Jendarteratze prozesuan eraginik nabarmenena duten agenteak familia eta eskola dira eta ikergai moduan hartutako ipuinak eskolako material izan daitezkeenez, garrantzitsua iruditzen zaigu hau aipatzea:

Hezkuntza formala ezin esan dezakegu eremu neutroa denik sozializazio ezberdintzaileari dagokionez. Kontuan hartu behar dugu hezkuntza politika erabat baldintzatua dagoela garai historikoaren arabera, tokiaren arabera edota jendartearen antolatze moduaren arabera. Zentzu horretan, egungo eskola eredu jendartearen isla argia dela esan dezakegu (...) Hezkuntza politika eredu maskulinoak zeharkatzen du

eta hori agerikoa da araei, balorazio sistemari edota antolaketari erreparatzen badiogu, besteak beste (Santamaria, 2012:31).

Santamariak, kasu honetan, ez du eskolako materiala aipatzen, hala ere, literaturak (eta beraz, hari loturiko ilustrazioak) uste duguna baino garrantzi handiagoa izan dezake haurren gizarteratze-prozesuan; izan ere, ipuinen bidez, familian, eskolan eta gizartean, belaunaldiz belaunaldi hainbat mezu zabaldu dira, jendarteratze prozesuan eraginez.

Ipuinek, heziketarako bide ezinhobea eskaintzen digute, eta hala, funtsezko baliabideak dira haur hezkuntzako etapan. Izan ere, haur literaturaren parte diren ipuinek, hainbat funtzio betetzen dituzte haurren garapenean: haurren sormena, adierazkortasuna eta irudimena estimulatzeko, emoziozko heziketa eratzeko laguntzen du, pentsamendua ezagutzen eta egituratzen laguntzen dute, hizkuntzari lotutako hainbat alderdi garatzen dituzte, etab. (Emaisía Elkarte, 2006).

Ezin aipatu gabe utzi, ipuinek errealitatea ezagutzen laguntzen diela haurrei, eta beraz, giza harremanak ulertzeko gakoak, jarrerak, baloreak, rolak eta portaera ereduak transmititzen dituzte. Hori dela eta, ezinezkoa da ukatzea haur literaturak, eta lan honetan jorratuko ditugun, ipuinetako ilustrazioek, jendarteratze prozesuan duten eragina, prozesu horretan duen funtzio argienetarikoa bat eredu femenino eta maskulinoen igorpena izanik.

### **3.3 GENERO IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA**

Haurrei bideratutako ipuinetan ageri diren ilustrazioak genero ikuspegitik ikergai izango ditugun heinean, garrantzitsua da, pertsonon genero identitatearen eraikuntzan sakontzea. Aldez aurretik azaldu dugun moduan, haurra jaiotzen denetik, neska edo mutila izateagatik dagozkion genero rolak eraikitzen ditu berarengandik espero diren balore eta jokaerak barneratuz eta prozesu horretan sakonduko dugu datozen lerroetan.

Genero identitatearen garapena azaltzeko Shaffer-ek Espinosak (2005) jasotzen duen moduan, jarraian ikusiko ditugun hiru aspektuak aipatzen ditu: genero

kontzeptuaren garapena, genero estereotipoen garapena eta generoak tipifikatutako jokaeren garapena.

Genero rolen eraikitze prozesuan eskuratzen den lehenengo lorpen ebolutiboa *genero kontzeptuaren garapena* da. Bi urte eta erditik edo hiru urtetatik aurrera, neskek eta mutilek bi kategorietako bat esleitzen diote euren buruari. Horri tiraka, adin honetako hurrek modu sexualki estereotipatuan jokatzeko dute, balorazioak, lehentasunak edo kanpoko atributuak horretan oinarrituz. Honek, euren identitatea argiago izaten laguntzen die, identitateari dagozkion eskema kognitiboak sendotzen ere laguntzen duelarik (Hidalgo eta Palacios, 1999; in Urtxintxa Eskola, 2007). Hala ere, 3 eta 5 urte bitarteko hurrek, oraindik ez dute neska edo mutil izatea bizitzan zehar egonkorra izango dela bereganatu.

Aurrera, berriz, Lehen hezkuntza hasieran, sexu identitatea, nortasun bereizgarri iraunkor bezala ulertzen hasiko dira, denboran zehar egonkor irauten duena, eta jabetze prozesu horren baitan ulertuko dute identitatea ez dela jantzien edo apaingarrien araberakoa, sexu biologikoaren araberakoa baizik (Espinosa, 2005).

Genero-identitatearen kontzientzia hartzearekin batera *genero-estereotipoak* eskuratzen dituzte neskek eta mutilek, Shaffer-ek aipatzen zuen bigarren aspektuari bide emanez. Izan ere, hurrek, jaio bezain laster – baita aurretik ere- tratu desberdina jasotzen dute, horrek, batzuentzat eta besteentzat sexu biologikoaren araberako jokaera eta itxaropen desberdinak sortzen dituelarik, genero estereotipoen jabetzea txiki txikitatik sustatuz (Espinosa, 2005).

*Generoak tipifikatutako jokaeren* garapena ere, oso goiz ematen den prozesua da. Esate baterako, neska-mutilek oso gaztetatik sexu biologiko bereko lagunetik lehentasuna erakusten dute, lehentasun horiek urteak igaro ahala areagotu egiten direlarik, generoen arteko desoreka iraunaraziz. Honek beraz, argi uzten du bizitzako lehenengo etapetatik hasten den irakaste- eta ikaste-prozesuak, helduaroan, zenbait jokaera ereduren eta itxaropenen garapena baldintzatzen duela (Espinosa, 2005).

### 3.4 ILUSTRAZIOA

Behin genero sistema eta jendarteratze prozesua ezagutu ditugula, ikergai honetako bigarren gai nagusian sakontzea dagokigu. Hala, atal honetan ilustrazioa eta bereziki haur ilustrazioa jorratuko dugu lehenik, honen moldaerak eta funtzioak aipatuz eta azkenik haurren eta ilustrazioen arteko harremanaz hitz egingo dugu.

Ilustrazioaz aritzean, hainbat definizio topa daitezke aditu desberdinen hitzetan. Laura Murillo Carreñoren hitzetan (2012), ilustrazioa irudiaren bidez, ideiak edo pentsamenduak ezagutzera emateko erabiltzen den komunikazio bidea da.

Chichoni ilustratzaileak ere, ilustrazioak komunikatzeko duen funtzioa azpimarratzen du modu honetan:

En un cierto género de pintura se plantea un hecho prevalentemente estético donde la composición y el uso del color suelen tener una preponderancia sobre la anécdota. En la ilustración, en cambio, existe siempre una carga narrativa más evidente y directa. Por lo tanto creo que una ilustración es una suma de calidad estética, buena técnica y originalidad narrativa (Chichoni; Murillo-k aipatua 2012:9).

Haur ilustrazioaren kasuan, irudien presentzia eta garrantzia areagotu egiten da. Izan ere, haur literaturan irudiek hainbat funtzio betetzen dituzte:

- Haurrak estimulatu egiten dituzte
- Plazera sortarazten dute
- Informazioa transmititzen dute, izaera narratiboa izanik
- Testuaren eta irudien arteko interakzioak ideiak komunikatzen ditu
- Haurrari erraztasuna ematen diote istorioaren garapena ulertzeko

Aipatzekoa da, ilustrazioak haur literaturan duen funtzioa, irudiek narrazioaren garapenean duten garrantziaren araberkoa dela. Ideia horri jarraituz, Bernardita Muñozek ("Literatura infantil"), ilustrazioen funtzioaren arabera liburuak 3 taldetan sailkatzen ditu:

- Liburu ilustratuak: Hauetan, testua da alderdirik garrantzitsuena, irudiek istorioaren garapena aldatzen ez dutelarik. Ipuin liburu tradizionalak lirarteke hauen adibideak.

- Album liburuak: Hauetan irudia eta narrazioa osagarriak dira istorioa kontatzerako orduan, bata zein bestea ezinbestekoa izanik istorioaren garapenean.
- Liburu mutuak: Ilustrazioz jositako liburuak dira, testurik gabekoak.

Kasu honetan, burutuko dugun ikerketarako, liburu ilustratu bat (Itsaso marraduna) eta bi album liburu (Z familia eta Txikitzen zaretenean) aztertuko dira.

Jarraian, hurrek ilustrazioekin duten harremana sakonago aztertuko da, ilustrazioek haurrengan zenbateko eragina izan dezaketen aztertzeko. Ainara Erroren hitzetan (2000), kontuan hartu behar dugu, irudi bat ulertzeko, hauei hertsiki lotuta dauden konbentzionalismoak ezagutzea ezinbestekoa dela; hau da, testuak irakurtzeko bezalaxe, irudiak irakurtzeko ere ezinbestekoa dugu kode jakin bat ezagutzea. Kode honen baitan, bi ezagupen bereizten dira: alde batetik, funtsezko elementuak: perspektiba, marrak, koloreak, etab. lengoia espezifikoa modura ulertu beharko genituzke. Aipatu beharra dago, lan honetan burutuko den irudien azterketan ez direla sakonki aztertuko elementu hauek, irizpideetan beste lehentasun batzuk zehaztu baitira.

Bestetik, konbentzionalismo sozial eta kulturekin lotutako faktoreak ulertu beharko genituzke. Hau da, inguratzen gaituen errealitate kultural eta sozialaren arabera, pertsonok kontzeptu bera modu desberdinean irudikatzen dugu (esaterako, mendebaldeko herrietan eguzkia zirkulu hori baten bidez irudikatzen da, Japonian gorri margotzen den bitartean). Gauza bera gertatzen da, beraz, irudi bat interpretatzean, izan ere, irudi bera modu desberdinean uler genezake testuinguru desberdineko bi hartzailek. Honekin zera ondorioztatzen da: hurrek ez dituzte ilustrazioak modu natural eta automatikoan ulertzen, ezinbestekoak dira testuinguruarekiko elkarreraginaren bidez zenbait jakintza bereganatzea.

Murillok (2012) psikologo baten hitzak ekartzen ditu gogora hurrek ilustrazioak zelan ulertzen dituzten azaltzeko eta ulertzeko prozesuan jakintza sozialen garrantzia azpimarratzen du:

L@s niñ@s tienen más dificultades que el adulto para reconocer una figura pequeña que se esconde en una figura mayor, lo mismo que para relacionar los detalles en una

totalidad, no sólo porque su cara es más pequeña y sus ojos están más cerca el uno del otro, sino también porque el niño ha vivido menos y que, consiguientemente, tiene menos experiencia en la cual basar sus juicios (Murillo, 2012:11).

### 3.4.1 Estereotipoak ilustrazioetan

Aipatu bezala, ilustrazioek mezu desberdinak zabal ditzakete arrakasta handiz. Hala ere, zenbaitetan mezu horiek sexuen arteko rolak iraunarazteko mezuak bidaltzen dituztela esan dezakegu. Izan ere, hainbat ikerketek frogatu dutenez (Association Européenne Du côté des filles, 1999), ipuinetako ilustrazio gehienek genero estereotipoak transmititzen dituzte. Estereotipoak zer diren ulertzeko, “Ipuinak ez sexistak izateko gida”-n (Urtxintxa Eskola, 2007) oinarrituko gara.

Estereotipoak kultura eta momentu historiko zehatz batean talde bati ezartzen zaizkion ezaugarri komunak dira, beraz, genero estereotipoak generoa osatzen duten kanpoko ezaugarriak, rolak eta funtzioak lirarteke.

Bi genero estereotipo bereiz ditzakegu: femeninoa (emakumezkoari esleitua) eta maskulinoa (gizonezkoari esleitua). Hauek oposizioz definitzen dira, “osagarriak” direla esaten da eta hierarkizaturik daude, maskulinoa femeninoaren gainean egonik. Estereotipoak aurreiritzi eta iritzi subjektiboetan sortu eta oinarritzen dira, gure gizarte harremanetan iritziak, jarrerak eta portaerak baldintzatuz, modu nabarmenki desberdin eta diskriminatzailean.

Hau azalduta, jarraian, hainbat ikerketek (Association Européenne Du côté des filles, 1999; Urtxintxa eskola, 2007) frogatu dituzten estereotipoen taula bat agertuko da (1. taula), non genero bakoitzari esleitzen zaizkion ezaugarriak azalduko diren (hauek kontuan hartuko ditugu ikerketa lana egiterakoan, estereotipoak transmititzen diren ikusteko):

EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
Espazioa: Espazio pribatuan	Espazioa: Espazio publikoan
Zaintza lanei lotuak. Objektuak: umeen kotxea, erosketen poltsa, etab.	Gutxitan agertzen dira zaintza lanei lotuta.
Etxeko lanei lotuak. Objektuak: amantala,	Etxetik kanpoko lanei lotuak. Objektuak:

erratza, garbitzeko tresnak, etab.	Zorroa/maletina.
Irakurgaiak: ipuinak, aldizkariak edo nobela arrosak. Harreman pribatuen eta sentimenduen munduari lotuta.	Irakurgaiak: Egunkariak. Kanpoko munduaren informazioari eta jakinduriari lotuta. Denbora propioaren sinboloa.
Pertsonaien adina: Askotan helduak (irakurlearen “ama”-ren adinekoak)	Pertsonaien adina: Askotan irakurlearen adinekoak, gizonezko heldu gutxi.
Lanbideak: Etxeko langileak, andereñoak, erizainak, dendariak.	Ikasleak edota lanbide anitzagoak (paper eta funtzio gehiago).
Beldurtiak	Ausartak
Pasiboak	Ekintzaileak
Sentimenduei lotuagoak	Arrazionalagoak
Jostailuak: jostailu gutxiagorekin agertzen dira. Gehienetan panpinak.	Jostailuak: jostailu gehiago eta anitzagoak dituzte: kirolarekin lotuak, jostailu teknologikoak, etab.
Gorputza/Ezaugarri fisikoak: ederrak lirainak, txukunak, garbiak, apainduak.	Gorputza/Ezaugarri fisikoak: ederrak, gihartsuak.
Arropa: lazoak, gona, soinekoa.	Arropa: prakak eta kamiseta, askotan zikin.
Koloreak: arrosa, gorria.	Koloreak: urdina, zuria.
Gurasoekin dituzten harremanak gutxiago deskribatzen dira: aginte, zigor eta debeku gehiago jasotzen dituzte.	Gurasoekin dituzten harremanak gehiago deskribatzen dira: gurasoen arreta gehiago lortzen dute, gehiagotan dira animatuak eta sarituak.

1. taula. Zenbait ikerketek aztertutako ilustrazioetako genero estereotipoak

### 3.4.2 Iruditegi hezkidetzaille baten bidean

Iruditegi hezkidetzaillea aipatzen duen atal honen baitan, ezinbestekoa da hezkidetzak kontzeptu bezala landu eta berdintasunerako bide bezala ulertzea, testuinguru jakin batean kokatuz.

Hezkuntza sistema, sozializatorako oinarritzko bitartekoa dela jakinik, gaur egun dauden ereduak birstortzeko baino, jendartean dauden arazoak gainditu eta jendartea bera eraldatzeko tresna izan beharko luke, sexuen arteko eskubide eta aukera

berdintasuna bultzatuz (Emagin & Bilgune feminista, 2012). Horretarako, hezkidetzaz litzateke gakoa, helburua eta lan tresna; eta hor, ipuinetako irudiek egin dezaketen ekarpena azpimarratu behar dugu.

Izan ere, ikusi dugun bezala, irudien bidez, haurrek, munduan eta beraien inguruan gertatzen diren gauzen irakurketa egiten dute, irudiek munduaren irudia eraikitzen laguntzen dietelarik.

Hori dela eta, Adela Turin adituak (Emakunde, 2009), haratago eramaten du ilustrazioetan ematen den genero estereotipoen bidezko sexismoa. Izan ere, bere ustez, sexismoa ez datza soilik genero estereotipoen agerpenean, ezta jendartean ematen ari diren aldaketak kontuan hartu gabeko egoeren agerpenean. Beraz, liburuak irakurleen kontzientzia eta pentsamoldeetan eragiteko tresna bezala ulertzen baditugu, emakume edo neskatuen egoera errealean irudiak erakustea, kritikarik egin gabe, eta modu horretan, naturalizat azaltzea, sexista da.

Ildo beretik, ilustrazioek sexismoaren iraupenean eragin dezaketela jakinik, jendarte hezkidetzazile baterako bide ere izan daitezkeela pentsa dezakegu. Hala, Emakundek (1993), estereotipoak gainditzekoan, ipuinetako irudiek duten garrantziaren aitortza egiten du, gizartearen ikuspegi zuzenagoa eta berdintasunean oinarrituagoa erakutsi baitiezaiekete haurrei. Ikaslearen eguneroko jardunean tarteko direla, irudien bitartez erreferentzia berriak, bizimodu desberdinak nahiz beste balore-sistema bat erakutsi daitezke, eta horrela, jeneroaren arabeko estereotipo murriztaileak gaindituz, iruditegi parekideago bat sortu, jendarte parekideago bat eraikitze bidean. Hori aztertzerako dator datozen orrialdeetan burututako ikerketa.

## **4. IKERKETA ENPIRIKOA**

### **4.1 METODOLOGIA**

Lanaren hasierako atalean adierazi ditugun helburu eta hipotesiak oinarri hartuta, ikerlan honen garapenean sakontzeko egin dugun bidea azaltzerako dator hasi



berri dugun atal hau. Datozen lerroetan aurkeztuko ditugu ikerketa honetan erabili dugun metodologia, teknikak eta prozesuari dagozkion hainbat xehetasun.

Ikerlan hau burutzeko eta hasieran zehaztutako hipotesia frogatzeko, hau da, jendarte eta iruditegi parekideago bat sortzera bidean, genero estereotipoen presentzia urrituz, ilustrazioetan eredu berriak eta anitzak eskaini daitezkeela frogatzeko, ikerketa kualitatiboa baliatuko dugu.

Ikerketa mota honen hautaketaren arrazoia hau da: ikerketa kualitatiboaren bidez, aukeratu ditugun ipuinen ilustrazioen azterketa sakonago bat egiteko aukera izango dugulakoan gaude, gure helburuak betetzeko garrantzitsuak izan daitezkeen elementuetan zentratuz. Kontuan hartu beharrekoa da, beraz, ikerketa honek lortuko dituen emaitzak, mugatuak izango direla, izan ere, erabilitako lagina ere mugatua da, zehaztutako irizpideak betetzen zituzten ipuinen ehuneko oso baxua ikertu baita.

Ikerlana burutzeko ipuinen aukeraketa ahalik eta egokiena izateko, zenbait irizpide zehaztu eta jarraitu dira. Ondokoak dira ipuinak aukeratzekoan kontuan hartu ditugun aldagaiak:

- **Ipuin ilustratua izatea:**

Ikerlan honetarako ezinbestekoa zaigu, ikertuko diren ipuinak ilustratuak izatea, hori izango baita ikertuko dugun arloa.

- **Ipuin garaikidea izatea, ez tradizionala:**

Alde batetik, ipuin tradizionalak askotan ikertuak izan direlarik, jakina da, estereotipo tradizionalak bete-betea transmititzen dituztela, jendarte tradizionalaren isla izanik. Hori horrela, gure ikuspuntutik interesgarria da aztertzea, gaur eguneko ipuinetako ilustrazioek, jendartean berdintasunaren diskurtsoa nahiko hedatua dagoen honetan, zer nolako irudiak eskaintzen dituzten.

- **3-6 urteko haurrei zuzendua izatea:**

Identitatearen eraikuntzaren atalean azaldu bezala, adin tarte honetan, haurren sexu identitateari dagozkion eskema kognitiboen sendotzea gertatzen da, eta

beraz, prozesu horretan ipuinetako ilustrazioek garrantzia izan dezakete, genero identitatea definitzeko eta egonkortzeko orduan.

- **Pertsonaiak pertsonak izatea:**

Garrantzitsua iruditzen zaigu ipuinetako pertsonaiak pertsona errealak izatea, eta animalien edo objektu pertsonifikatuaren presentzia baztertzea, ikerketa honetan interesgarriagoa iruditzen baitzaigu, ilustrazioetan pertsonak zelan irudikatzen diren aztertzea, modu honetan, haurrak euren ingurunearekin antzekotasun gehiago identifikatuko dituzten ipuinak lehenetsiz.

- **Ipuina euskaraz argitaratua egotea.**

Izan ere, ikerketa honekin gaur egun, Euskal Herriko eskoletan euskaraz erabili daitezkeen ipuinak ikertu nahi izan dira, bai jatorriz euskaraz idatziak baita itzuliak izan direnak.

Jarraian, aldagai hauek kontuan izanik ikertzeko aukeratutako ipuinak azalduko zaizkigu.

<b>Izenburua</b>	<b>Idazlea</b>	<b>Irudigilea</b>	<b>Argitaletxea</b>	<b>Urtea</b>
<b>Itsaso marraduna</b>	Susana Barragués Sainz	Carlos Javier Cecilia Centeno	A Fortiori	2007
<b>Z familia</b>	Pep Bruno	Mariona Cabassa	Pamiela, Kalandraka	2010
<b>Txikitzen zaretenean</b>	Uxue Alberdi	Aitziber Akerreta	Pamiela, Kalandraka	2013

2. taula. Ikerketarako hautatutako ipuinak

Ipuinak behin aukeratuta, hauen irudien azterketa egin da. Hori egiteko erabili den ikerketa tresnak, bi dokumentu izan ditu oinarri: “Vivir los cuentos. Guía para contar los cuentos” (Ramos, 2006) eta “Nola landu eta aukeratu hezkidetzako ikasmaterialak” (Zaitegi de Miguel eta Urruzola, 1993). Lan honetan biak uztartzea erabaki da, ikerketari nire ekarpena eginez, ikerketa tresna berri bat osatuz, ahalik eta ikerketarik sakonena egin asmoz.

Behin irudien azterketa eginda, emaitzen interpretazioari ekingo diogu, hipotesiaren eskemari jarraituz, ipuinetako ilustrazioek eredu berri eta anitzak eskaini ditzaketen frogatuz eta ondorioak ateraz. Hau egiteko, Emakundek, “Nola landu eta aukeratu hezkidetzako ikasmaterialak” eta Emasiak “Xake mate! Aisialdian ipuinen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta” argitalpenean plazaratutako irizpideak hartuko ditut oinarri. Jarraian ikusgai izango ditugu, aipatutako irizpideak.

## 4.2 IRUDITEGI HEZKIDETZAILE BATERAKO IRIZPIDEAK

- Agertzen diren pertsonaia femenino eta maskulinoen proportzioa errealiterata egokituta egotea.
- Pertsonaiak toki desberdinetan kokatzea, generoen araberako kokapen estereotipatua ekidinez. Pertsonaia femeninoak beti toki itxietan, txikietan, edota etxe barruan eta maskulinoak kanpoan, toki publikoetan agertarazi beharrean, denak toki guztietan ager daitezela.
- Emakumeen eta gizonen lanbideak ez direla “klitxe” sexisten araberakoak erakustea: maistra, idazkari, erizaina... batetik, eta irakasle, zuzendari, mediku... bestetik, baizik eta, emakumeak nahiz gizonak lanbide berberetan eta anitzetan dihardutela erakutsi.
- Etxeko lanak egiten ere bi generotako pertsonaiak ager daitezela.
- Neskentzat nahiz mutilentzat interesgarriak diren jarduerak moldatu. Bai neskei eta bai mutilei atsegin zaizkien jolas, hobby edo astia emateko eta gozatzeko era berriak, esate baterako.
- Lagunekin ateratzen diren emakume helduak ager daitezela.
- Pertsonaia hauei eraxkitako kalitateez arduratu, estereotipatu gabekoak izan daitezten. Hala, bizitasuna, sentimenduen adierazpena, ausardia, afektibitatea, ekimena, etab. bai nesken eta bai mutilen ezaugarriak direla erakustea, bereizketarik gabe.
- Emakume eta gizonen balio positiboak neurri berean bultzatu, pertsona eredu berria lortzeko.
- Familia eredu aniztasuna agertzea, bikote banatuak, homosexualak, ama seme-alabekin, aita seme-alabekin, etab.

- Emakumearen eta gizonaren gorputzak ezein diskriminazio negatiborik gabe aurkeztu jarrerai, keinuei, jarduerai eta abarrei dagokienez. Edertasuna dela eta, ezarritako estereotipoak gainditu eta pertsona bakoitza berez ederra dela erakutsi.
- Helburua den-dena konpartitzea dela erakutsi; pribatua eta publikoa, lana eta jolasa, etab. Ez erabili rolen aldaketa mekanikoa azaltzen duten irudiak; aitzitik, tradizionalki ezarritako rolen edo ezaugarrien adibide moduan, bai neskak eta bai mutilak agertu daitezela.
- Bizimodu berriak eskaini: lan egiteko, gozatzeko, bidaiak egiteko, ikasteko... era berriak.

### 4.3 IPUINEN AURKEZPENA

Irudien azterketa egiteko, hiru ipuin hautatu ditugu (2.taula). Esan beharra dago, ipuinen artean zenbait antzekotasun topa badaitezke ere, aniztasuna dela ezaugarri nagusia, ipuin tradizioaletatik arlo desberdinengatik aldentzen direlarik. Jarraian, ipuin hauek hautatzera eraman gaituzten arrazoi desberdin eta anitzak azalduko dira:

- Itsaso Marraduna:


Ipuin hau, A Fortiori editorialak Familiaren alde izeneko bildumaren parte da. Bilduma hau familia kontzeptua berriro zehaztearen aldeko apustutik jaio zen, familien aniztasuna balore positibo moduan lantzeko asmoz. Hori dela eta, interesgarria iruditzen zaigu, aniztasunaren alde egiten duen liburu honek zer nolako pertsona eta bizimodu eredu eskaintzen dituen aztertzea.

- Z familia:

Ipuin honek, Album ilustratuen Compostelako III. Nazioarteko Saria irabazi du eta beraz, interesgarria iruditu zaigu hurbilagotik aztertzea. Ipuinean, familia baten bizimodua da ardatza, zeina zirkuarekiko zaletasunak elkartu eta bizia ematen dien, ipuin honetan, beraz, egunerokotasuna eta zirkuarekin lotutako ezaugarriak elkartuko zaizkigu.

- Txikitzen zaretenean:


Ipuin hau, mezuaren berezitasunagatik aukeratua izan da. Izan ere, kontakizun honek bizi-zikloa azpikoz gora jartzen du, haurren mundu bizia eta nagusien mundu grisa desberdinduz eta egunerokotasuneko plazer txikiak azpimarratuz. Beraz, interesgarria iruditzen zaigu, haurren mundua nagusien mundutik bereizten duen amildegiaren aurrean kokatzen gaituen ipuin honek ere, zer nolako ereduak eskaintzen dituen aztertzea.



1. irudia. "Itsaso marraduna" liburuaren azala



2.irudia. "Z Familia" liburuaren azala



2.irudia. "Z Familia" liburuaren azala

#### 4.4 IRUDIEN AZTERKETA

##### ITSASO MARRADUNA

ARGITALETXEA: A Fortiori

URTEA: 2007

IDAZLEA: Susana Barragués Sainz

IRUDIGILEA: Carlos Javier Cecilia Centeno

	Pertsonaia femeninoa	Pertsonaia maskulinoa
<b>1. PRESENTZIA</b>		
Pertsonaia-kopurua	2	3
<b>2. PROTAGONISMOA</b>		
Protagonista nagusia	1	
<b>3. ESPAZIOA</b>		
Toki publikoa: Soldatapeko lantokietan		2
Toki publikoa: Ekintza eta toki publikoetan	1	
Toki pribatua: Etxean, dendan, auzoan...	1	1
Toki pribatua: Toki itxian/familiarekin	1	1
<b>4. LANBIDEAK</b>		
Bere jeneroari eratzeki ohi zaizkionak ez bezalako lanbideetan		
Ordaindutako lanetan.		2
<b>5. AISIA</b>		
Mugimendua, ekintza nahiz harreman soziala eskatzen duten jolas-ekintzetan	1	
Lan intelektualari lotuta (irakurketa, idazketa)		1
Pertsonaia helduak astialdiko ekintzetan	1	1
<b>6. ETXEKO LANAK</b>		
Etxearen eta etxekoen mantenuerako funtsezkoak diren (ez laguntza hutsa) lanak egiten	1	1
<b>7. EZAUGARRI FISIKOAK</b>		
Gorputzaren irudikapen estereotipatua	Ez	Ez
<b>8. ARROPA</b>		
Jantziak	Soinekoak Galtzerdi bakarra	Prakak eta alkandora/kami- seta
Koloreak	Arrosa, gorria	Urdina, zuria
<b>9. OBJEKTUAK</b>		
Bere generoari eratzeki ohi zaizkiona ez bezalako objektuekin		Sukaldeko tresnak
<b>10. TEKNIKA</b>		
Irudietan erabilitako teknika		Digitala

3. taula. "Itsaso marraduna" liburuaren ikerketa taula

**Z FAMILIA**

ARGITALETXEA: Pamiela, Kalandraka

URTEA: 2010

IDAZLEA: Pep Bruno

IRUDIGILEA: Mariona Cabassa

	<b>Pertsonaia femeninoa</b>	<b>Pertsonaia maskulinoa</b>
<b>1. PRESENTZIA</b>		
Pertsonaia-kopurua	Hainbat	Hainbat
<b>2. PROTAGONISMOA</b>		
Protagonista nagusia	Ez dago protagonistarik	
<b>3. ESPAZIOA</b>		
Toki publikoa: Soldatapeko lantokietan	2	1
Toki publikoa: Ekintza eta toki publikoetan	Hainbat	Hainbat
Toki pribatua: Toki itxian/familiarekin	4	5
<b>4. LANBIDEAK</b>		
Bere jeneroari eratzeki ohi zaizkionak ez bezalako lanbideetan	1	
Ordaindutako lanetan.	2	1
<b>5. ETXEKO LANAK</b>		
Etxearen eta etxekoen mantenturako funtsezkoak diren (ez laguntza hutsa) lanak egiten		1
Senitartekoei laguntzen	3	1
<b>6. AISIA</b>		
Kirol ariketan	Hainbat	Hainbat
Mugimendua, ekintza nahiz harreman soziala eskatzen duten jolas-ekintzetan	Hainbat	Hainbat
Helduak lagunekin hizketan		1
Lan intelektualari lotuta (irakurketa, idazketa)	2	2
Pertsonaia helduak astialdiko ekintzetan	4	4
<b>7. EZAUGARRI FISIKOAK</b>		
Gorputzaren irudikapena	Ez	Ez
<b>8. ARROPA</b>		
Arroparen kolorea	Denetarik	Denetarik (arrosa izan ezik)
<b>8. OBJEKTUAK</b>		
Bere generoari eratzeki ohi zaizkiona ez bezalako objektuekin	Laneko zorroa Ezpata baloia	Amantala aldizkaria
<b>10. TEKNIKA</b>		
Irudiak egiteko erabilitako teknika	Grafittoa eta koloretako arkatzak	

4. taula. "Z Familia" liburuaren ikerketa taula

**TXIKITZEN ZARETENEAN**

ARGITALETXEA: Pamiela, Kalandraka

URTEA: 2013

IDAZLEA: Uxue Alberdi

IRUDIGILEA: Aitziber Akerreta

	<b>Pertsonaia femeninoa</b>	<b>Pertsonaia maskulinao</b>
<b>1. PRESENTZIA</b>		
Pertsonaia-kopurua	4	5
<b>2. PROTAGONISMOA</b>		
Protagonista nagusiak	1	2
<b>3. ESPAZIOA</b>		
Toki publikoa: Soldatapeko lantokietan	4	4
Toki publikoa: Ekintza eta toki publikoetan	1	2
Toki pribatua: Toki itxian/familiarekin	1	2
<b>4. LANBIDEAK</b>		
Bere jeneroari eratzeki ohi zaizkionak ez bezalako lanbideetan		1
Ordaindutako lanetan.	4	4
<b>5. ETXEKO LANAK</b>		
Etxearen eta etxekoen mantenerako funtsezkoak diren (ez laguntza hutsa) lanak egiten		1
<b>6. AISIA</b>		
Kirol ariketan	1	
Mugimendua, ekintza nahiz harreman soziala eskatzen duten jolas-ekintzetan	1	2
Helduak lagunekin hizketan		
Lan intelektualari lotuta (irakurketa, idazketa)	1	
Pertsonaia helduak astialdiko ekintzetan	1	1
<b>7. EZAUGARRI FISIKOAK</b>		
Gorputzaren irudikapen estereotipatua	Ez	Ez
<b>8. ARROPA</b>		
Arroparen koloreak	Denetarik	Denetarik
<b>9. OBJEKTUAK</b>		
Bere generoari eratzeki ohi zaizkiona ez bezalako objektuekin	Egunkaria Pisuak Bolantea	Sukaldeko tresnak Josteko tresnak
<b>10. TEKNIKA</b>		
Irudietan erabilitako teknika	Mistoa: akrilikoa, collage eta teknika digitala	

5. taula. "Txikitzen zaretenean" liburuaren ikerketa taula



## 5. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Ikerketa hau egiteko eman ditugun urratsak eta erabili dugun metodologia azaldu ondoren, lortu ditugun emaitzak aurkezteko unea iritsi da.

Dagoeneko aipatu dugu ikerketa honi ikuspuntu kualitatibotik heldu diogula eta ipuinetako irudietan gaur egun eskaintzen zaizkigun emakume eta gizonen eredu berriak ezagutzea eta ilustrazioek genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten ikertzea dugula helburu.


Presentziari dagokionez, pertsonaia femenino nahiz maskulinoen presentzia nahiko parekatua da. Hala ere, aipatzekoa da, kuantitatiboki pertsonaia femenino eta maskulinoen kopurua berdina izate soilak, ez duela hauen eredu berrien transmisioa bermatzen. Beraz, arlo gehiagoren inguruko emaitzak aztertu beharra daukagu.

Ipuinetan agertzen diren pertsonaia hauek zein espaziotan kokatzen diren ere aztertu dugu. Ikerketaren emaitzei erreparatuz, pertsonaia hauek toki desberdinetan kokatuta ageri dira, generoen araberako kokapen estereotipatua nolabait ekidinez, hala, espazio pribatua zein publikoa ezein generoko pertsonena dela adieraziz. Hala ere, generoek espazioan duten agerpenaren inguruan zera azpimarratu behar dugu: ikertutako ipuinetan toki pribatuan gizonen agerpena bermatu bada ere, eta toki publikoetan emakumeen agerpena normalean baino handiagoa izanda ere, emakumeen presentzia espazio publikoetan zertxobait urriagoa dela ikusi dugu.

Lanbideei dagokienez, zenbait kasutan pertsonaiak haien generoari eratzeki ohi ez zaion lanbideari lotuta agertzen dira; hala nola, emakume bat laneko zorroarekin esaterako. Beste adibide bat jarri ahalko genuke: "Z Familia"-n aita jostun bezala aurkezten zaigu, testuak hala azalduta, baina irudiei dagokienez, berriz, ez da josteko tresnekin batera agertzen den pertsonaren aurpegia ikusten, beraz, estereotiporik gabeko ideia hau, irudietan hankamotz geratzen dela esan dezakegu. Horrez gain, esan beharra dago, emakumeak lantoki publikoetan agertzen badira ere, gehienak emakumeei lotutako lanbideetan agertzen direla: erietxe batean edo irakasle bezala.



7. irudia. Gizonezkoa etxeko lanetan  
"Z Familia"



8. irudia. Gizonezkoa etxeko lanetan  
"Itsaso marraduna"




9. irudia. Gizonezkoa etxeko lanetan  
"Txikitzen zaretenean"

Etxeko lanei dagokionez, berriz, gai honen inguruko sentsibilizazio handiagoa dagoela nabaria da, aztertutako hiru ipuinetan, horren inguruko aurrerapausoak sumatu baititugu. Izan ere, bi generoetako pertsonaiak agertzen zaizkigu etxeko eta etxekoen mantenturako funtsezkoak diren lanak egiten. Aipatzekoa da baita ere, senideak leku batetik bestera mugitzeko arduradun bezala, ama aurkezten zaigula, kotxea gidatuz, normalean gizonezkoek lotuta dagoena.



7. irudia. Gizonezkoa etxeko lanetan  
"Z Familia"




8. irudia. Gizonezkoa etxeko lanetan  
"Itsaso marraduna"




9. irudia. Gizonezkoa etxeko lanetan  
"Txikitzen zaretenean"

Hala ere, hauren zaintzari dagokionean bi esparru desberdinu daitezke: eskolako jolastokia azaltzen denean, umeen zaintzaz arduratzen diren pertsonaia gehienak emakumeak dira, baina kalea edo etxea agertzen zaigunean gizonezkoak. Ondorioen atalean jorratuko dugu berezitasun honen inguruko hausnarketa.




10. irudia. Gizonezkoa umekin etxean "Txikitzen zaretenean"



11. irudia. Emakumezkoak umeen zaintzan eskolan "Txikitzen zaretenean"


Aisiari dagokionez ere, oro har, estereotipoak gaindituz, bai neskei eta bai mutili atsegin zaizkien jolas edo astia emateko eta gozatzeko era berriak agertzen zaizkigu. Horrekin batera, arlo honetan, generoen aldaketa mekanikoa saihesteko ahalegina dagoela suma daiteke. Izan ere, irudigileek pertsonaia femeninoei maskulinoztat hartzen diren jarduerak eta pertsonaia maskulinoei femeninoztat hartzen diren jarduerak halabeharrez eratzeki beharreen, pertsonaia guztiak jarduera anitzak egiten irudikatu dituzte. Modu honetan, tradizionalki ezarritako rolen edo ezaugarrien adibide moduan bai neskak eta bai mutilak ikus ditzakegu, jarduerak konpartitzearen garrantzia azpimarratuz: neska-mutilak batera panpinekin zein futbolekin jolastuz ageri dira, esaterako.



12. irudia. Aisialdia "Z Familia"




13. irudia. Aisialdia "Itsaso marraduna"



14. irudia. Aisialdia "Txikitzen zaretenean"


Ezaugarri fisikoei erreparatuz, pertsonaien gorputzen zein motatako irudikapena egiten den aztertu dugu, gorputzen irudikapen estereotipatua egiten den edo ez ikusteko. Modu honetan, aztertutako ipuinetan gorputzak irudikatzerakoan irudigileek estereotipoak alde batera utzi dituztela ikusi dugu. Izan ere, argi ikus dezakegu, pertsonaien irudiak sortzeko erabilitako elementuetan (forma, marra, posizioa, etab.) ez diotela gorputzaren formari garrantzia handia eman nahi izan, emakume lirainak eta gizon gihartsuak ekidinez.




15. irudia. Arropa eredu berriak pertsonaia femeninoetan "Txikitzen zaretenean"

Honekin batera, pertsonaien arropa aztertu dugu. Alde batetik, jantziei erreparatuz, pertsonaia femeninoen artean, Itsaso marradunaren kasuan ez ezik, jantziak tradizionalki ipuinetako irudietan erabiltzen zituztenak (hau da, gonak eta soinekoak) baino anitzagoak direla ikusi dugu. Hala, kasu batzuetan, nesken arropan hauen aktibotasunaren irudia azpimarratu da kirol arroparen, kamiseta mugimenduagatik gaizki jarrita agertzearen edota praktetan jositako adabakien bidez.


Bestetik, arroparen koloreei erreparatuz, oro har, koloreen aniztasuna nabaria da, koloreen banaketa tradizionalki egin dena baino anitzagoa izanik. Hala ere, aipatu beharra dago "Itsaso Marraduna" liburua agertzen diren pertsonaia femenino biak, emakumeekin lotutako koloreetako soinekoak daramatzala jantzita: gorria eta arrosa. Horrez gain, arroparen koloreei dagokionez, ezin aipatu gabe utzi, kolore arrosari buruzko zehaztapen hau: kolore arrosa arropetan erabilia izan denean, pertsonaia femeninoen jantzietan izan da soilik, pertsonaia maskulino bakarrak arropa arrosa erabili duenean mozturroturik izan delarik.



16. irudia. Pertsonaia femeninoa soineko arrosarekin "Itsaso marraduna"



17. irudia. Pertsonaia femeninoa soineko gorriarekin "Itsaso marraduna"



18. irudia. Kolore arrosako jantziak pertsonaia femeninoetan. "Txikitzen zaretenean"




19. irudia. Kolore arrosako jantziak pertsonaia femeninoetan. "Txikitzen zaretenean"

Pertsonaiei atxikitzen zaizkien objektuei dagokionez, hainbat kasutan, pertsonaiak euren generoari eratzeki ohi ez zaizkien objektuekin lotuta agertu direla ikusi dugu, arlo honetan, estereotipoak gaindituz eta eredu berriak eskainiz. Hala, emakumezkoak laneko zorroa, egunkaria, pisuak, baloia, eta ezpatarekin irudikatuak izan dira eta gizonezkoak, amantala, sukaldeko tresna zein aldizkariekin.

Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu, irudien alderdi teknikoei erreparatzea. Hauen artean, koloreen erabilera azpimarratzea funtsezkoa iruditzen zaigu. Izan ere, aztertutako hiru ipuinen artetik, bi libururen irudigileek (Z familia eta Txikitzen zaretenean) kolorearen erabilera zehatza egin dute, adierazi nahi zutena lortzeko kolorea baliabide sinboliko gisa erabiltzea tresna eraginkorra dela erakutsiz, izan ere, erabilera horrek berebiziko garrantzia du ipuinean zehar. Hala, desberdintasunak desberdintasun, bi ipuin hauetan kolore neutroek, hau da, beltzak, zuriak, eta grisaren tonalitate desberdinek, egunerokotasuna, errutina edota helduen errealitatea islatzen dute; kolore biziak bizitasuna, poztasuna, edota irudimenaren isla direlarik. Hau esanda, aipatzekoa da, aipatutako “Z familia” eta “Txikitzen zaretenean” liburuetan, orri gehienek oinarria kolore neutroek osatzen dutela, pertsonaiak izanik kolorearen eta beraz, bizitasunaren emaile. Horrela izanik, esan genezake, kolorea ez dela generoen arteko bereizketa areagotzeko erabilia izan, bestelako mezu bat bidaltzeko baizik.



20. irudia. Kolorearen erabilera  
“Z Familia”



21. Irudia. Kolorearen erabilera  
“Txikitzen zaretenean”

## 6. ONDORIOAK

Aurreko atalean, hautatutako ipuinen irudien azterketaren emaitzak aztertu ditugu, eta jarraian, horiek kontuan hartuz atera ditugun ondorioak aurkeztuko ditugu.

Atal honetan beraz, hainbat gai jorratuko ditugu; lehenik, ikergaiaren hasieran ezarritako helburu eta hipotesiak berriz hartuko ditugu honen berrikusketa egin asmoz; jarraian, aurrekoa argudiatzeko erabili ditugun emaitzetatik ateratako ondorioak aurkeztuko ditugu; bestetik etorkizunerako erronkak zein proposamenak ere izango ditugu hizpide, eta azkenik, ikerlari bezala gure lehen esperientzia izan denari buruzko balorazioa egingo dugu.

Esan bezala, lehenik eta behin, gure lana gidatu duen hipotesia bete den ala ez ikusiko dugu, egindako ikerketaren bidez lortutako emaitzen argitan. Ondoko hipotesia izan da ikergaiaren iparrorratza: jendarte eta iruditegi parekideago bat sortzera bidean, genero estereotipoen presentzia desagerraraziz edo urrituz, ilustrazioetan eredu berriak eta anitzak eskaini daitezke.

Lana burutzen hasterakoan, gaur egungo ipuinetako irudiek zer nolako ereduak eskaintzen ziren aztertu nahi genuen, aurrekari bezala hartu ditugun ikerketetan ateratako emaitzen estereotiporik gabeko (1. taula) iruditegi berri bat sortzea posiblea litzatekeen edo ez ikusteko. Eta aurreko atalean aipatutako emaitzak kontuan hartuta, esan genezake hipotesi hori baieztatu egin dugula baina ñabardura batzuekin. Izan ere, alde batetik, ikerketan ikusi ahal izan dugunez, iruditegi parekideago bat sortzea egingarria da, irudien bidez eredu anitzak eskainiz eta transmitituz. Beraz, hurrengo adierazpenaren idazleei arrazoia eman beharrekoan gaude:

Se observa una tendencia hacia una equidad sexual, una apuesta editorial por dar un enfoque más igualitario en el álbum ilustrado despojándolo del simbolismo sexista de las imágenes, introduciendo más protagonistas femeninas, incorporando al hombre en el ámbito de lo doméstico y a la mujer en el ámbito de lo profesional, mostrando niñas valientes y emprendedoras, niños sensibles y contemplativos; dando así respuesta a la diversidad de las personas independientemente de su sexo y facilitando herramientas para la formación como individuos de pleno derecho (García López, et al., 2009:203).

Beste alde batetik, hala ere, oraindik ere genero bakoitzari lotutako zenbait ezaugarri ipuinetako ilustrazioetan dirautela ikusi dugu. Beraz, oraindik ere

aurrerapausoak eman behar direla sinesten dugu, zenbait kasutan ipuinetako irudiek eskaintzen dizkiguten ereduak gaur eguneko errealitatera hobeki egokitu eta eredu berriagoak transmititu daitezzen.

Hein txikiago batean bada ere birproduzitzen jarraitzen diren eredu hauek inkontzienteki transmititzen direla pentsa dezakegu, eta horretan sakontzeko, Alberto Urdiales ilustratzailearen hitzak ekarriko ditugu gogora:

Sí hay mensajes vertidos en las ilustraciones de modo inconsciente, de ello somos igualmente responsables. Serían mensajes inconscientes aquellos que emitimos sin darnos cuenta, bien porque forman parte tan intrínseca de nosotros mismos que, nos resulta imposible identificar, o bien porque forman parte de nuestra cultura y son tan habituales en todos los medios que pasan desapercibidos (Urdiales).

Hau baina, ezin daiteke aitzakia moduan erabili eta iruditegi hezkidetzaille baten bidean oztopo gaindiezintzat hartu. Izan ere, ahaleginak izan dira beti edozein aldaketaren motor, eta irudiek orain arte, oro har, rol estereotipatuen eta bizimodu ez parekideen transmisiorako balio izan badute ere, ezerk ez du oztopatzen irudigileek norabidea aldatu eta euren lanak jarrera, harreman eta eredu berriak sustatzera bideratzea (Association Européenne du Côté des filles, 1998:5).

Aurreko ideiak baieztatzeko oinarriak, ikerketaren emaitzak eta hauetatik ateratako ondorio nagusiak dira, datozen lerroetan azalduko ditugunak.

Hipotesia bete dela diogunean, ipuinetako irudien bidez eredu berriak eskaini daitezkeela diogu. Kasu honetan, aipatu beharra daukagu, etxeko lanak eta aisia direla parekidetasun mailarik altuena duten arloak. Izan ere, etxeko eginkizunei dagokionez, gizonak eta emakumeak agertzen zaizkigu bertan parte hartuz, rol tradizionalekin apurtuz.

Senideen zaintza edo konpainiari dagokionean, kasu honetan hurrei lotutakoa, emaitzetan zera azaldu dugu: eskolako jolastokia azaltzen denean, umeen zaintzaz arduratzen diren pertsonaia gehienak emakumezkoak dira, baina kalean edo etxean (ospakizun batean) hurrekin batera agertzen diren pertsonaia heldu gehienak gizonezkoak dira. Honek hausnartzeko parada eman digu: izan ere, emakumeak egunerokotasunean beharrezkoak diren zaintza lanez arduratzen direla eta gizonezkoak berriz, aisialdiari edo aukerako lanei lotuago agertzen direla ondoriozta



daiteke. Beraz, aisiari lotutako azken lan hauei garrantzia kendu barik, gizonaen umeen funtsezko zaintza lanetan parte hartzeari dagokionez gabezia sumatu dugula esan beharrean gaude.

Aisiari dagokionez, jardueren artean aniztasun handia dagoela ikusi dugu, eta pertsonaien eredu berriak eskaintzen zaizkigula baieztatu genezake, oro har, pertsonaiak denetarik egiten ikus baitaitezke, euren generoa edozein delarik ere. Horrekin batera, arlo honetan, esan beharra dago, generoen alderantzizkatze mekanikoa saihesteko ahalegina dagoela, beraz, estereotipoen taula gogora ekarriz (1.taula), esan daiteke, bestelako eredu batzuk eskaintzen zaizkigula.

Emakume eta gizonen gorputzen irudikapen estereotipatuari dagokionez, aurrerapausoak eman direla esan dezakegu. Jada emakume guztiak ez dira ederrak eta lirainak, ezta gizonak gihartsuak ere, aniztasuna da nagusi. Honekin batera, ezin dugu ahaztu, emakume eta gizonen balio eta ezaugarri positiboak neurri bertsuan pertsonaia desberdinen artean bultzatuak direla, pertsona eredu berriak lortzeko bidean.

Hipotesia frogatzean, ilustrazioetan oraindik ere, rol eta estereotipo tradizionalei lotutako zenbait ezaugarri lekua dutela azaldu dugu. Lanbideen kasuan, arlo hau oraindik ere nahiko banatua dagoela ondorioztatu dugu, izan ere, emakume bakarra agertu da bere generoari eratzeki ohi ez zaion lan ordainuari lotuta, besteak irakasle eta erietxe bateko langile bezala agertu zaizkigularik. Gizonaen kasuan, irudietan soilik oinarrituz, ezin dezakegu esan emakumeoi tradizionalki lotutako lanik eratzeki zaizkienik, hala ere, lanbide anitzagoetan ikusi ditugu. Beraz, arlo honetan oraindik ere gabezi bat dagoela esan dezakegu, gaur egun, emakumezkoek eta gizonaen burutzen dituzten lan anitzen isla argiagoa falta delarik ipuinetako irudietan. Modu horretan lortuko baita hurrek lanbideen artean dagoen aniztasuna ezagutu, eta beraiei edozein dagokiela ulertzea, euren erabakian oinarrituz eta ez euren generoan.

Espazioen banaketari dagokionez, ikertutako ipuinetan toki pribatuan gizonaen agerpena bermatu bada ere, eta toki publikoetan emakumeen agerpena normalean

baino handiago izanda ere, emakumeen presentzia espazio publikoetan zertxobait urriagoa dela ikusi dugu.

Horrez gain, arroparen koloreei dagokionez, ezin aipatu gabe utzi, kolore arrosari buruzko zehaztapen hau: kolore arrosa oraindik ere neskei bideratutako kolorea dela esan dezakegu, mutilei kolore hori beraiena ez dela adieraziz, aukerak kenduz.

Bestalde, etorkizunerako erronkak izango ditugu hizpide datozen lerroetan. Lanean zehar, ipuinek eta hauen irudiek euskarri hezitzaile bezala duten garrantzia azpimarratu dugu, ideia hau nabarmenduz: ipuinak ez dira neutroak, eta irudietan, mezuetan bezalaxe, munduaren interpretazioa zabaltzen da. Hori dela eta, marko teorikoaren atalean aipatu den legez, haurren kasuan, jendarteratze eragile nagusiak familia eta eskola izanik, hauen garrantzia azpimarratu nahiko genuke, hurrekin erabiltzen den ipuinen aukeraketa eta trataeran. Izan ere, jendarte bidezkoago nahi badugu, premiazkoa izango da honi dagokion garrantzia eskaintzea.

Ondorioz, etorkizunean, ezinbestekoa izango da, ipuinen erabilera edozein delarik ere (hezitzaile edo senide batek kontatuta edo hurrek bere kabuz erabilia) ipuinak bere osotasunean aztertzea, hurrei eskainiko zaiena, arlo guztietan, lortu nahi dugun jendarte parekidearen eredu izan dadin.

Bestalde, ikerketa honek etorkizunerako beste ikerketa ildo batzuk proposatzera garamatza. Etorkizuneko balizko ikerketa honen garapen batean interesgarria izango litzateke ideologia feministatik hurbil dauden irudigileen irudiak aztertzea. Oraingoan irudigileen arlo horretako informaziorik ez genuenez, ezin baitugu arlo hori baloratu ahal izan. Modu horretan, konparaketa bat egin ahal izango genuke feminismotik hurbil dauden irudigileen eta urrun daudenen arteko irudien artean eta ilustrazioaren gaian feminismoak zenbaterainoko jarrera kritikoa izatea ahalbidetzen duen frogatu ahalko genukeelako.

Bestetik, hurrek ipuinetako irudiekin dituzten harremanak, sentipenak eta irudiek bidaltzen duten informazioa zein modutan interpretatzen duten aztertzea ere interesgarria litzateke. Hala, arlo hori modu egokian ikertzea ahalbidetuko liguketen

teknikak baliatuz, irudiek haurren zertan eta zenbateraino eragiten duten aztertu ahal izango genuke.

Behin ikerlana bukatu dugula, prozesu honetan bizitako esperientzia pertsonalari erreparatzea garrantzitsua deritzogu. Esan beharra dago, denboraren faktoreak ikerketa honetan nahi genukeen beste gozatzea oztopatu digula. Izan ere, honelako ikerlan batek hausnarketa guztiak patxadaz egitea eskatzen du eta uneoro gure baieztapen guztiak zalantzan jartzea. Horrez gain, aberasgarritzat jotzen dugun esperientzia bizitzeko aukera eman digun ikerlana ere izan da. Eta azkenik, etorkizunean zabalduko bide honi eta era berean, ikergai honek zabaldu ditzakeen beste bide berri batzuk jorratzeko gogoia piztu zaigula esan beharra daukagu. Beraz, oraindik lan asko egiteke dagoen arren, gure lana berdintasunaren bide luzean urrats bat egiteko baliagarria izatea espero dugu.

## 7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Aguilar García, Teresa (2008). El sistema sexo-género en los movimientos feministas. *Amnis: Revue de Civilisation Contemporaine Europes/Amériques*. <http://amnis.revues.org/537> [Kontsulta: 2014/04/03]

Alberdi, Uxue eta Akerreta, Aitziber (2013). *Txikitzen zaretenean*. Galizia: Pamiela.

Alfaro, Maria Cecilia (1999). *Develando el género. Elementos conceptuales básicos para entender la equidad*. <http://www.colpos.mx/web11/images/meg/pdf/mod09.pdf> [Kontsulta: 2014/3/13]

Álvarez Molés, Pili (2012). *Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en la CAPV*. Emakundek diruz lagundutako Ikerketa lana. [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/pub\\_publicaciones/es\\_def/adjuntos/B-3\\_2011.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/pub_publicaciones/es_def/adjuntos/B-3_2011.pdf) [Kontsulta: 2014/2/11]

Antecedentes históricos del concepto de Género (2006). <http://132.248.35.1/bibliovirtual/Tesis/Castillo/cap2.pdf> [Kontsulta: 2014/4/13]

García López, Rocío; Loring Moreno, Rocío; Retamero Molina, Ana Ángeles; et al.

Borda Crespo, M. Isabel (koord.) (2009). *Análisis y descripción de la producción editorial andaluza en álbumes ilustrados (1999-2006)*. [http://www.juntadeandalucia.es/culturaydeporte/web/html/sites/consejeria/areas/letras/Galerias/Adjuntos/estudios/1\\_Estudio\\_Analisis\\_y\\_descripcixn\\_produccixn\\_editorial\\_Andaluz\\_Albumes\\_Ilustrado.pdf](http://www.juntadeandalucia.es/culturaydeporte/web/html/sites/consejeria/areas/letras/Galerias/Adjuntos/estudios/1_Estudio_Analisis_y_descripcixn_produccixn_editorial_Andaluz_Albumes_Ilustrado.pdf) [Kontsulta: 2014/4/28]

Aristizabal Llorente, Pilar (2010). *Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan: Gasteizko Irakasle Eskolaren kasua*. Doktore-tesia, Euskal Herriko unibertsitatea (U.P.V./E.H.U.)

Association Européenne Du côté des filles (1998). *¿Que ven los niños en los libros de imágenes? Respuestas sobre los estereotipos*. <http://www.fundaciongsr.com/pdfs/2encuesta.pdf> [Kontsulta: 2014/05/13]

Association Européenne Du côté des filles (1999). *¿qué modelos para las niñas? Una investigación sobre los libros ilustrados*. <http://www.fundaciongsr.com/pdfs/1cifras.pdf> [Kontsulta: 2014/02/27]

Barragués Sainz, Susana eta Cecilia Centeno, Carlos .Javier (2007). *Itsaso marraduna*. A Fortiori.

Bruno, Pep eta Cabassa, Mariona. (2010). *Z Familia*. Vigo: Pamiela.

De Beauvoir, Simone. (1949). *El segundo sexo* (II alea). Madrid: Cátedra, Universitat de Valencia, Instituto de la Mujer.

Emagin dokumentazio eta ikerkuntza zentro feminista hezkidetza & Euskal Herriko bilgune feminista (2012). *Hezkidetza lau haizetara*. [http://topatu.info/wp-content/uploads/2012/11/hezkidetza\\_lau\\_haizetara1.pdf](http://topatu.info/wp-content/uploads/2012/11/hezkidetza_lau_haizetara1.pdf) [Kontsulta: 2014/03/12]

Emaisia Elkartea (2006). *Xake mate! Aisialdian ipuinen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta*. Bizkaia: Urtxintxa eskola.

Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea (2009). El poder de las ilustraciones. *Emakunde. Cuentos infantiles y roles de género*, 75 zk., 30-30. [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/sen\\_revista/es\\_emakunde/adjuntos/emakunde75.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/sen_revista/es_emakunde/adjuntos/emakunde75.pdf) [Kontsulta: 2014/03/10]

Erro, Ainara (2000). La ilustración en la literatura infantil. *Rilce*, 16.3 zk. Universidad de Navarra.

Eraldatzen Egitasmoa (2011). *Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen*. 2011-2012, 1-51. Bizkaia: Urtxintxa eskola.

Espinosa Bayal, M<sup>a</sup> Angeles (2005). Generoa eta ereduak familian. *SARE. Nazioarteko Kongresua: Egungo neskak, etorkizuneko emakumeak* (31-40). Donostia: Emakunde.

Literatura infantil: el poder de las imágenes. *Educarchile*. <http://www.educarchile.cl/ech/pro/app/detalle?ID=130971> [Kontsulta: 2014/4/13]

Murillo Carreño, Laura (2012). La ilustración infantil en Colombia: una cuestión de pensar en los niños. *Schema*, 1 zk., 7-29. <http://www.polisemiadigital.com/schema/images/revista1/articulo01.pdf> [Kontsulta: 2014/03/02]

Ramos López, Cristina (2006). *Vivir los cuentos. Guía para contar los cuentos*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer. Consejería para la Igualdad y el Bienestar Social. Junta de Andalucía.

Santamaria, Ainara (2012). *Musikagintza eta maitasun erromantikoa: "Hesian" Rock taldea adibide*. Euskal Herriko unibertsitatea (U.P.V./E.H.U.)

Urdiales, Alberto. *Cien años de ilustración infantil española. Ilustración Infantil*. Centro virtual Cervantes. <http://cvc.cervantes.es/actcult/ilustracion/intencion.htm> [Kontsulta: 2014/05/02]

Urtxintxa eskola (2007). *Ipuinak ez sexistak izateko gida. Gomendioak eta adibide praktikoak*. Bizkaia: Urtxintxa eskola.

Zaitegi de Miguel, Neli eta Urruzola Zabalza, M<sup>a</sup> Jose (1993). *Nola landu eta aukeratu hezkidetzako ikasmaterialak*. Gasteiz: Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.